## GAURKO FILMEAK

# Wolfgang 'Amadeus' Mozart, bi grinaren arteko gerra zeluloidezkoa

BEGOÑA DEL TESO

Bukatzear dago 1991. urtea. Bukatzear bigarren mendeurreneko jai eta ospakizunak. Asteazkenean, TVEn, 'Olvidar Mozart' agindu ziguten ordu txikietan. Ezina. Ezinezkoa. Horrexegatik gaur, berriro ere, 'Amadeus' ikusiko dugu. Bai, jakin badakigu musikazale amorratuek egundakoak esaten dituztela filme honen kontra. Bai, jakitun gaituzue, Salieri ez zen horren musikari traketsa. Ezta horren lehiakide maltzurra ere.

Bai, jakinaren gainean gaude. Aitaren mamua ez zen gorpuztu Mozarten aurrean bera hil zorian zegoela. Igoal dio. Atsegina dugu umekeriatan aise zebilen maisu gazte eta zerutiarra. Atsegina musika. Atsegina Don Giovanni erraldoia. Negar egingo dugu ehorzketa goibelean. Barre ihauterietako dantzan...

Gainera, aukera handiagorik ez dago gure kateetan. Ez debaldekoetan ezta ordaindu beharrekoetan ere. Oesteko xume bat, 'Sólo el valiente'; gerrako beste bat, 'Entre dos pasiones'; negar egiteko aproposa den 'Alerta en el cielo', Pablito Calvo antzesle... Horretaz gain, Manuel Gutierrez Aragonek egindako fabula harrigarria: 'Feroz'. Fernán Gomez, hartz bat eta... Elene Lizarralde.

Espainiako Canal Plusen, 'Terminator II' ikaragarria burutu zuenaren 'Aliens, el regreso' eta Jeff eta Michelle 'Las fabulosas Baker Boys-en'. Besterik ez. Amadeusi egiozue harrera.

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 08.55 | C+(f) | ○○○ | EWOKS LA BATAILE D´ENDIOR | 1985 | Jim eta Ken Wheat | 95 m. |
| 10.30 | TVE2 | ○ | ALERTA EN EL CIELO | 1961 | L. Cesar Amadori | 83 m. |
| 11.30 | A3 | ○○ | LOCO, LOCO KUNG-FU | - | Cheng Lung | 95 m. |
| 15.30 | T5 | ○○○ | CITA EN HONG KONG | 1955 | Edward Dmytryk | 93 m. |
| 16.00 | TVE1 | ○○○ | SOLO EL VALIENTE | 1951 | Gordon Douglas | 100 m. |
| 18.09 | A3 | ○○ | CORAJE, SUDOR Y POLVORA | 1972 | Dick Richards | 100 m. |
| 19.25 | ETB2 | ○○ | EL TESTIGO | 1950 | Robert Montgomery | 100 m. |
| 22.00 | C+(e) | ○○○ | VENDEDORES DE NOTICIAS | 1988 | W.H. Macy | 67 m. |
| 22.05 | A3 | ○○ | UNOS POLICIAS VIOLENTOS | 1987 | John Stockwell | 94 m. |
| 22.05 | TVE1 | ○○○○ | AMADEUS | 1984 | Milos Forman | 153 m. |
| 22.50 | ETB1 | ○○ | DULCE PIEL DE MUJER | 1981 | Gianfranco Angelucci | 103 m. |
| 00.00 | A3 | ○○ | FEROZ | 1983 | M. Gutierrez Aragón | 111 m. |
| 01.00 | TVE1 | ○○ | KILL | 1971 | Romain Gari | 99 m. |
| 01.05 | TVE2 | ○○ | ORIANA | 1985 | Fina Torres | 86 m. |
| 01.44 | A3 | ○○ | INTIMIDADES DE UN SEPARADO | 1981 | Peter Markle | 88 m. |
| 02.35 | TVE2 | ○○○ | LA GUERRA GAUCHA | 1942 | Lucas Demare | 91 m. |
| 02.55 | C+(f) | ○○○ | UNE RORE NOIRE POUR UN TUEUR | 1980 | José Giovanni | 105 m. |

○ *TXARRA* ○○ *ESKASA* ○○○ *BALEKOA* ○○○○ *ONA* ○○○○○ *BIKAINA*

### AMADEUS

**Zuzendaria:** Milos Forman.
**Aktoreak:** Tom Hulce, F. Murray Abraham.

Ikuskizun handia. Paregabea. Entzuteko plazerra. Zorioneko sentitzeko beharra. Dohakabea zarelako bultzada aldendu ezina. Espektakuloa. Ikuskizuna. Famaren barrea. Ospearen laztana. 'Amadeus'. Zortzi oskar. Sariak inoiz inon zuzenak izan badira, hona hemen kasua. Zeluloidezko opera kaskarina, 'Xirula miresgarria' bezain arina. Planuz osaturiko opera sakona, 'Don Giovanni-ren' antzekoa.

### DULCE PIEL DE MUJER

**Zuzendaria:** G. Angelucci.
**Aktoreak:** C. Spaak, F. Rey.

Filme erotikoa, «kalitatezkoa» omen. Oso mimatua, nonbait. Ikusi nahi duena, baina ausartu ez, izan dadila lasai, zeren badago aitzakia dotorea Espainia eta Italiaren arteko ekoizpen hau ikusteko. Dauden antzesleei erreparatu, arren: Fernando Rey, Catherine Spaak eta abar... Azala txukuna badu ere, barrukoa da ustela. Susan Scott andereñoa, hortik dabilen neskatila ederra baina edadetua ez da existitzen. Bere izen berdaderoa, Margarita Navarro, beraz ez pentsa jokalari amerikarrik dagoenik filmatxo honetan. Denak dira gezurrezkoak.

Izarra, ala behintzat izarra izan nahi zuena, Clio Galdsmith da. Emmanuellekin ibili zen lehia bizian baina amore eman behar izan zuen. Horrexegatik, behe mailako pornoak, polito lagunduta, hori bai, besterik ez zituen egin... Oso gutxi galdu genuen, ikuslea ez bait zen aktore fin eta klase handikoa.

### LA GUERRA GAUCHA

**Zuzendaria:** Lucas Demare.
**Aktoreak:** E. Niniño, F. Petrone.

Ez zen nolanahiko pertsonaia Lucas Demare jauna. Tangoak idazten zituen Lucasek, bere anaiak musika jartzen zien bitartean. Aditua, trebea zen bandoneoarekin eta beti zebilen tangoak jotzen herrialdean.

1938an hasi zen zine lanetan. Argentinan zituzten sustraiak egin zituen filme guztiak, hala nola 'Chingalo', 'Pompa bárbara', 'Gaucho'. Melodramak ziren zenbaitzu. Melodrama ikaragarriak. Besteak, berriz, alaitsuagoak eta eskukada bat aberriaren ispilu zauritua. Adibiderik? Gaurko 'La guerra gaucha', Espainiako erregeen kontrako borroka azaltzen diguna. Zimeldua ba zeluloidea, baina oraindik badu indarra matxinadarako.

### FEROZ

**Zuzendaria:** M. Gutierrez Aragón. **Aktoreak:** F. F. Gómez, Elene Lizarralde.

Hartzak ikasiko al du hizketan? Zer ote Pablo? Gizakia ala animalia? Zertarako izan gizakumea, mila demontre. Ordenadore baten botoia zapaltzeko edo? Hamaika galdera era baldar batez erantzungo ditu erdizka Gutierrez Aragonek. Ehun aukera zuen egileak inoiz ikusitakoa pantailaratzeko, baina banan banan, alferkeriak eta gogorik ezak jota galdu zituen, arranopola.

TVE2
CONCIERTO PARA JOVENES
Musika klasikoa 12.30

M6
COSBY SHOW
Umorezko saioa 12.30

TVE1
EL TIEMPO ES ORO
Lehiaketa 19.35

ETB2
REPORTEROS
Urrutia eta Etxaberen grabazioa 00.05

**LA CINQ 5**

06.30: **Le journal permanent.** 07.30: **Youpi!.** 09.20: **Cap danger.** 09.50: **Les animaux du soleil.** 10.20: **Chevaux et casaques.** 11.00: **Mille et une pattes.** 11.50: **Écrire contre l'oubli.** 11.55: **Que le meilleur gagne.** 12.40: **Méteo.** 12.45: **Le journal.** 13.20: **Le retour de Mike Hammer.** 15.00: **C'est pour rire.** 15.10: **En direct des courses.** 15.45: **Capitaine Furillo.** 16.40: **Riptide.** 17.35: **La loi de Los Angeles.** 18.25: **Intégral.** 19.00: **L'enfer du devoir.** 20.00: **Le journal.** 20.40: **Le journal des courses.** 20.50: **Perry Mason.** 22.30: **Shogun.** 23.25: **Journal de la nuit.** 23.35: **Sangria.** 23.40: **Freddy, le cauchemar de vos nuits.** 00.30: **La nuit sur la 5.**

**M6**

06.00: **Boulevard des clips.** 08.30: **Pour un clip avec toi.** 10.00: **Infoprix.** 10.05: **M6 boutique.** 10.30: **Multitop.** 12.00: **Culture rock.** 12.25: **Météo 6.** 12.30: **Cosby show.** 13.00: **O'Hara.** 13.55: **Supercopter.** 14.50: **Laredo.** 15.45: **Les aventures de Papa-Poule.** 16.45: **Hong Kong connection.** 17.35: **Le saint.** 18.25: **Les têtes brûlées.** 19.20: **Turbo.** 19.54: **6 minutes.** 20.00: **Papa schultz.** 20.30: **Bonne nouvelle.** 20.40: **Le monstre des profondeurs.** 22.20: **La malédiction du pharaon.** 00.00: **6 minutes.** 00.05: **Rapline.** 02.30: **Hong KOng.** 03.20: **La 6e dimension.** 03.50: **La Tunisie.** 04.40: **Le glaive et la balance.** 05.30: **Nouba.**

**CANAL+**

07.00: **CBS evening news.** 07.25: **Ça cartoon.** 08.10: **Canaille peluche.** 08.45: **Écrire contre l'oubli.** 08.55: **'Ewoks: la bataille d'endor'.** 10.30: **Le journal du cinéma.** 10.35: **'Potins de femmes'.** 12.30: **Flash info.** 12.35: **24 heures.** 13.35: **L'assassin était dans mon roman.** 15.30: **Football américain.** 17.05: **Les superstars du catch.** 18.00: **Décode pas bunny.** 19.05: **La grande supercherie.** 19.35: **Le top.** 20.30: **'Couffin surprise'.** 22.00: **Les nuls... l'émission.** 22.55: **Quincy a montreux II.** 23.55: **Le journal du cinéma.** 00.00: **'La bourgeoise et le privé'.** 01.10: **'Panique a Needle Park'.** 02.55: **'Une robe noire pour un tueur'.** 04.55: **'Kinjite, sujet tabou'.** 06.30: **Pieges de soie.**

**TELE 5**

07.15: **Entre hoy y mañana.** 07.55: **Superguay del sabado.** 10.30: **Las chicas con las chicas.** 11.00: **Humor amarillo.** 11.35: **Pressing catch.** 12.05: **El sheriff chiflado.** 13.00: **Telecinco ¿digame?.** 15.00: **Campeones.** 15.30: **'Cita en Hong Kong'.** 17.25: **Vip noche.** 19.00: **Vivan los novios.** 19.30: **¿Hablando se entiende la basca?.** 20.00: **Ines Duarte, secretaria.** 21.00: **Manuela.** 22.00: **Humor cinco estrellas: Cheers, Apartamento para tres, El nuevo Benny Hill.** 00.15: **Entre hoy y mañana.** 01.00: **Pressing boxeo.** 02.00: **Play boy.** 03.00: **Amaiera.**

**A3**

07.00: **La llamada del oeste.** 07.30: **Aula 3.** 08.00: **De tu a tu.** 09.30: **Noticias.** 09.33: **La guarderia del sabado.** 11.00: **Furia.** 11.30: **'Loco, loco Kung Fu'.** 13.00: **Centimetros cubicos.** 14.00: **Noticias.** 14.03: **Embrujada.** 14.30: **Los heroes de Hogan.** 15.00: **Noticias.** 15.30: **El programa de Hermida.** 18.00: **'Entre dos pasiones'.** 20.00: **Noticias.** 20.03: **Chicas con clase.** 20.30: **Noticias.** 21.00: **3 de A3.** 22.00: **Noticias.** 22.03: **'Unos policias violentos'.** 00.00: **'Feroz'.** 01.30: **'Intimidades de un deparado'.** 03.00: **El programa de Hermida.** 05.30: **Oh video.**

**CANAL+**

08.10: **ABC world news.** 08.40: **Los 40 principales.** 09.30: **Newhart.** 10.00: **'Mas allá de la realidad'.** 10.43: **'En el baile del pato'.** 13.00: **Del 40 al 1.** 14.00: **Noticias.** 14.10: **La pandilla plumilla.** 14.35: **Los chicos de Beverly Hills.** 15.00: **Premiere Canal+.** 16.25: **'Aliens, el regreso'.** 18.35: **Especial infantil.** 20.00: **Avance redaccion.** 20.05: **Mama, detective privado.** 20.30: **Primer plano.** 21.00: **Lo + Plus.** 21.30: **Noticias.** 22.00: **'Vendedores de noticias'.** 23.24: **'Los fabulosos Baker Boys'.** 01.12: **Inside out.** 01.22: **'El caso de la viuda negra'.** 03.00: **Boxeo.** 06.30: **'Juegos de amor en la universidad'.**

## IRRATIA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Arrate Irratia. | FM 87.7 | Gure Irratia. | FM 89.6 |
| Bizkaia Irratia. | FM 102.6 | Irulegi Irratia. | FM 93.1 |
| Egin Irratia. | FM 103.0 | Segura Irratia. | FM 89.2 |
| Euskadi Irratia. | OM 1.161 | Xiberoko Botza. | FM 98.6 |
| Euskalerria Irratia. | FM 91.0 | Xorroxin Irratia. | FM 107.5 |
| Gipuzkoa Herri Irrat. | FM 99.8 | Iruñeko Herri Irratia. | FM 87.6 |

**Iruñeko Herri Irratia.** 'Hor hemenka' ibiliko gara, eguerdiko ordubi t'erdietatik hiruretara; 'Hor hemenka' kultur munduan ematen diren albisteen artean; 'Hor hemenka' ikuskizun batetik bestera; 'Hor hemenka' aisialdian egin ditzakegun gauzak topatzen... Guztia, aipatutako gaien inguruko elkarrizketaz lagundurik.

**Euskalerria Irratia.** 'Ama, aspertuta gaude!'. 'Jantzi eta segi orduan kalera, ea pake piska bat ematen didazuen'. 'Ez ama, hotza egiten du.' 'Amatxo, zergatik ez duzu Euskalerria Irratia jartzen. Larunbatero, goizeko bederatzietan irratsaio polit bat egoten da 'Xingulu-Mangulu' izenekoa. Joan den larunbatean Aitziberren lehengusuaren gelakoak atera ziren bertan. A ze parrak.

**Gasteiz Irratia.** Kirol erretrasmisioek programazioaren tarte zabal bat beteko dute gaurkoan. Dena den, izango da besterik noski. Goizeko hamarretatik eguerdiko ordubata t'erdiak arte, 'Plaza nueva' magazina eskainiko da. Jarraian saskibaloiaren txanda iritsiko da 'Supercanasta' saioarekin. Ordubietako albistegiaren ondoren, kirol albiste nagusiak ezagutzeko aukera izango dugu. Musika klasikoaren doinuak, bazkalosteko kafearekin batera helduko dira. Ondoren Taugres Baskonia eta Estudiantes taldeen arteko saskibaloi partidua eskainiko da zuzenean. Arratsaldeko zortzietan aldiz, Real Madrid eta Realaren partidua zuzenean jarraitzeko aukera izango dugu.